

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 249. alea - 2020ko martxo



**Kale hutsak edo ilara amaigabeak,
koronabirusaren bi aurpegiak**



Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan


Hondartza kalea
Tfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



BURU - ZURI
Taberna

- Otarrekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauefan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN


Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



LIGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

AURKIBIDEA

4

GUTUNAK

“(H)ari gara Debako Kultur Elkarte”;
“Kardantxulo egunik ez da ospatuko momentuz”...

8

ALBISTEA

Apirilaren 25ean egingo da Deban Zalakain abenturazalearen ikuskizun dantzatua

10

ERREPORTAJEA

“Koronabirusa eta bere itzal handia”;
erreportajea eta bi elkarrizketa irakurgai

14

IRUDI BILDUMA

Herritarrek bidalitako argazkiekin osatu dugu aurtengo inauteriei dagokien bilduma

16

B. GAZTEA

Biografiak, kartel ezberdinak eta film baten erreseina irakurgai, Martxoaren 8aren bueltan

Koordinatzaile eta kazetari berria ditu Zuhatza Euskara Elkartek

Berriketan-en bitartez adierazi genizuen Zuhatzak elkarterako koordinatzaile eta kazetaria aukeratzeko hautaketa-prozesua abian jarri zuela. Bada, eman ditu fruituak dagoeneko prozesu horrek: Alex Turrillas Gonzalez eta Nagore Dorronsoro Aizpuruak beteko dituzte aurrerantzean elkartearen bi lan horiek.

Alex Turrillas (Deba, 1992) koordinatzaile arituko da, Terese Larrañagak utzitako lanpostuan. Herri mugimenduetan

aritua eta zaildua da Alex eta behin baino gehiagotan aritu da zuhatzakideekin elkarlanean; ez dugu zalantzarik gogotsu eta ideiaz gainezka datorkigula. Tereseri dagokionez, lanpostuan ez bada ere, elkartearen aktibo jarraituko du orain arte hain fin bete dituen hainbat administrazio-lan eginez.

Nagore Dorronsoro (Deba, 1976) kazetari arituko da, kasu honetan Izaro Aulestiarerekin batera, hilerok *Berriketan*-

ek argia ikus dezan lanean. Sorreratik, 1997tik, dugu Nagore Zuhatzako kide, baita *Berriketan* aldizkariako partaide eta zuzentzaile ere.

Eskerrik asko Alex eta Nagore erronka berri honi griñaz heltzearen, baita zuri ere Terese, elkartearen indartzeko jardunean egindako guztiarengatik eta onena emanaz, oraindik, Zuhatzatik hain gertu jarraitzearen!

Zuhatza Euskara Elkartea

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatza
EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hezkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saiburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea, Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Alex Turrillas, Nagore Dorronsoro eta Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzioa

Publizitatea: Joseba Escudero, Terese Larrañaga eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria


Lege gordailua: SS-246-2009

Inprimategia: Euskalinpri

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

(H)ari gara Debako Kultur Elkartean

Jendartean aldaketak gertatzen diren era berean, Debako Kultur Elkartean ere eraldaketak gertatzen ari dira. Eta Kultur Elkarteak kultur eragile zein norbanakoen etxe izan nahi duenez, kultur sentsibilitate desberdineko pertsonak erakarri nahi ditu, elkarte indartu dadin, ekintza berri eta anitzak antolatzeko. 2019an 33 talde ezberdinek erabili dute Kultur Elkarte beraien ekintzak burutzeko.

Kultur Elkarteak berritze prozesuan ilusioz eta gogoz jardungo duten herritarrak behar direla uste du eta hilabeteak daramatza egoera irauli nahian.

Elkarteko zuzendaritza taldeak borondate osoz lan egin arren, batzuetan zaila izaten da talde eta norbanakoek

egindako eskariei nahi bezain azkar erantzuna ematea.

Horren adibide, *Berriketan*-en abenduko alean kaleratutako artikulua.

Artikulu horrek Kultur Elkarte egi-ten ari den berritze eta zabaltze lana gutxiesten zuen. Betiko moduan, artikuluan aipatzen zen ekintzan ere, Kultur Elkarteak elkarlanean eta hurbiltasunez lan egiteko prestutasuna agertu zuen, nahiz eta horrelako kontuak adosten diren bileren maiztasunagatik ez genuen izan lehenago erantzuteko aukerarik.

Artikuluaren atzetik dagoen taldeak eskatzen zuen gelan, Oteizak egindako Arantzazuko apostoluen molde originalak gordetzen dira; Udala eta Aldundiarekin gabiltza ikusgai egoteko

leku aproposa aurkitzeko elkarlanean. Gauzak horrela, guk proposatutako beste leku bati uko egin zioten.

Kultur Elkarteko kideok talde honekin batu eta irtenbide bat aurkitu genuen, beti saiatu ohi garen bezala.

Gogoan har dezagun Kultur Elkarte kultur irrika duen edonorentzat zabalik dagoela, proiekturen bat burutu ahal izateko.

Kultur Elkarteko bazkide izan nahi duen edonor jar daiteke gurekin harremanetan; zuzendaritzako edozein kide-ekin hitz eginez edo emailaren bidez: ostolazadeba@gmail.com.

Idea edo ilusio berriak ongi etorriak izango dira!

Debako Kultur Elkarteko zuzendaritza

Bideak zabaltzen ari gara; bide berriak irekitzen

Kaixo:

Euskaraldiko Herri Batzordetik ari gatzazkizue. Hasiak gaude 2020koa antolatzen, bideratzen,... eta, aizue, ilusioz gabiltza. Orain arte bisitatu ditugun entitateetan (izan dendari edo ostalariak, izan kirol zein kultura elkarteak, izan enpresa pribatuak), ondo baino hobeto hartu gaituzte eta Euskaraldia euren lanean txertatzeko gogoia badutela erakutsi digute.

Ze, dakizuenez, aurten, banaka parte hartzeaz gain, taldetan probatu ahal izango dugu Euskaraldia. Talde natura-

letan. Ariguneak deitu diegu euskaraz adostasunez eta lasai hitz egiteko gune horiei. Eta hortxe gabiltza, Ariguneen bila, urte honen lehenengo erdian.

20 bat lagun, ttiriki-ttarraka, herriko denda eta tabernak, kirol eta kultur elkarteak eta enpresak bisitatu; euskarra ulertzen dugunon artean, ahoz, gehiago hitz egiteko helburuarekin. Probatzen ari gara. Ilusioz, esan bezala. Eta umorez. Bakoitzari bere neurriko erabakiak hartzen lagunduz. Euskaraldian batzuk Belarriprest izango gara; beste batzuk

Ahobizi; Ariguneetan euskaraz gehiago egiteko urratsak eman nahian, denok. Bideak zabaltzen ari gara; bide berriak irekitzen. Eta hori inportantea ez ezik, interesgarria ere bada, ez duzue uste?

Apirilaren 20an egin nahi dugu Euskaraldian parte hartuko duten zenbait entitateen aurkezpen ekitaldia, koronabirusaren ondorioz atzeratu behar ez baldin bada behintzat. Egon adi eta hurbildu prentsurrekora. Gustatuko zaizue, uste dugu; gustatuko litzaiguke.

Debako Euskaraldia. Herri Batzordea

Momentuz ez da ospatuko Kardantxulo egunik

Azken denboraldi honetan jasaten ari garen egoerak behartuta, Andutz Biltokiko kideok apirilaren 4an Kardantxulo Eguna ez ospatzea erabaki

dugu. Koronabirus -COVID-19- gaixotasuna izan da eguna bertan behera uztearen arrazoia. Erabaki hau hartzeko, noski, Osasun Sailaren gomendioak izan

ditugu kontuan. Denborak eta egoerak aurrera egin ahala joango gara berri gehiago ematen honen inguruan.

Andutz Biltokia

Debako Euskararen Historia Sozialari jarraipena emateko dokumentazio premian

Deia egiten die Udalak herritarrei Debako eskolen inguruko agiriak (aktak, argazkiak, txostenak...) udaletxera bidaltzeko

Frankismo garaira arteko historia eta testigantzak, neurri batean bederen, jaso diren arren (otsaila amaieran banatu zen Debako Euskararen Historia Soziala biltzen duen dokumentala), ez da lana amaitutzat jotzen. 2020-2022 aldian beste ikerketa-proiektu bat garatzea adostu da eta datozen urteetarako lan ildoak edo arreta, bereziki, hezkuntza sisteman jarriko da.

Gai nagusia, beraz, Debako hezkuntza arloaren ikuspegi soziolinguistikoa aztertzea izango da.

Debako Itziarko Ama Ikastolaren sorrerari arretaz begiratuko zaio, baina aldi historiko hori ikertzeko testuinguru zabalagoa hartuko da kontuan ikerketan.

Zehazki helburu hauek ezarri zaizkio ikerketari: aro garaikideko Debako

hezkuntzaren inguruko gertakari nagusiei testuingurua jartzea; Itziarko Ama Ikastolaren aurrekariak, sorrera eta garapena azaltzea; Ostolaza ikastetxe publikoak euskalduntze bidean egindako urratsak aztertzea; eta ikastolaren publikazio prozesuaren ondorioz sortutako Luzaro eta Mendata ikastetxe publikoek Debako euskararen biziberritzeari egindako ekarpena jasotzea.

Eskaera bat luzatu die, beraz, Debako Udalak herritarrei, gai horien inguruan etxean gordeta izan ditzaketen dokumentuak eta irudiak (aktak, argazkiak, txostenak...) udaletxera bidal ditzaten, ikerketarako oso baliagarriak izango baitira. Dokumentuak euskara@deba.eus helbide elektronikora bidali behar dira.

Itziar eta Debatik igaroko da UEMAREN topaketa ibiltaria

Udan Itziar eta Debatik igaroko da gazteak euskararen inguruan ahalduzko UEMAK lehenengoz iaz antolatutako topaketa ibiltaria. Zumaia Lekeitiora joango dira gazteak.

“Gazteak euskararen inguruan sensibilizatzeko, kontzientziatzeko eta eragile aktibo bihurtzeko” antolatzen ditu UEMAK topaketa hauek Eusko Jaurlaritzaren babesarekin eta, aurten, Zumaia, Deba, Itziar, Lekeitio eta Ondarroako udalen laguntzarekin.

Ekainaren 29tik uztailaren 5era izango da topaketa, 50 lagunentzako lekua izango da bertan eta martxoaren 31 bitartean zabalik egongo da izena emateko epea.

Euskararen inguruan herritarrak kontzientziatzeko eta sensibilizatzeko ekimenak dira UEMAREN ildo nagusietako bat azken urteotan. Horren baitan, euskararen arnaguneei buruzko hezkuntza proiektua sortu zuen UEMAK duela lau urte, eta



azken ikasturteetan UEMAKo herrietako ikastetxe guztietan aritu dira lanean UEMAKo teknikariak.

Azken hiru urteotan, berriz, hezkuntza arautuaren mugak gainditu nahi izan dira eta horretarako udalerri euskaldunetako gazteentzako topaketak eta udalekuak antolatu ditu UEMAK.

Jarduera hauen helburu nagusia, euskaraz bizi diren gazteek inertziaz kontzientziarako saltoa ematea eta horrekin efektu biderkatzailea sortzea da, horrela, euskararen lurgunea hedatzen jarraitzeko.



MAITE RODRIGUEZ

Zientzialariek kea asmatu dutela uste dute

Zientziak aurrerapenak egin ahala, kondaira asko benetako gertakarietan oinarritzen direla egiaztatzen ari dira zientzialariak. Australiako aborigenek, adibidez, argi eta garbi daukate euren jatorria, eta gaur egungo zientzialariak ahoa bete hartz utzi dituzte euren ipuinak zientziak onetsi dituenen.

Gunditjmara aborigenek belaunaldiz belaunaldi kontaktu dituzte euren jatorriari buruzko istorioak. Budj Bim izeneko izakia lurrazpitik irten zen, burutik laba botatzen zuen tontorra bihurtzeko, lurra eta basoak dantzan zirela. Erupzio bolkanikoa deskribatzen duela nahiko argi dago. Gunditjmarak bizi diren lekuan, 40ko hamarkadan aizkora bat topatu zuten errauts bolkanikoko geruza berrienaren azpian. Datatze metodo berriekin, zientzialariek duela 37.000 urte kokatu dituzte bai aizkora eta baita erupzioa bera ere. Gunditjmaren arbasoek erupzioak ikusi eta ondorengoei kontaktu zizkietela dirudi.

Australiako aborigenek 40.000 urte inguru daramatzate bertan, eta inork baino hobeto ezagutzen dute ingurumena. Baso-sute kontrolatuak egiten zituzten, haizea eta sua erabiliz, belarra poliki erreaz zuhaitzak erre gabe, eta abar. Sute kontrolatu horiekin, suebakiak lortzen dira, errautsek lurra ongarrizten dute eta landareek kimu berriak botatzen dituzte, animaliak erakartzen dituztenak.

2019ko Australiako baso suteek, 10,7 milioi hektarea erre zituzten hegoaldean eta 500 milioi animaliri eragin zieten uste da. Australiako iparraldean, berriz, aborigenen teknikak erabiltzen dira eta ez zuten hain arazo larririk eduki.



Debarrak munduan

MARI CARMEN GALARRAGA

Lau bat hamarkada daramatza Mari Carmen Galarragak Debatik kanpo. "19 urterekin joan nintzen Parisera frantsesa ikastera eta geroztik Iparraldean bizi izan naiz, bertako herri ezberdinetan". 62 urte dauzka gaur egun eta Angelun bizi da. Debara eginda-ko azken bisitetako batean erantzun die *Berriketan*-ek egindako galderei.

Non zaude gaur egun? Zergatik?

Angelun bizi naiz. Lana gertu geratzen zait eta seme-alabak ere bai, nahiz eta beraien bizitza egiten duten.

Zerk eraman zintuen horra?

Hizkuntzak ikastea asko gustatzen zait. Horregatik erabaki nuen Parisera frantsesa ikastera joatea. Bertako Euskal Etxea-ko jendea ezagutzeko aukera izan nuen eta, ondorioz, Iparraldera gerturatu.

Zertan zabilta orain?

Adin txikiko gazteak, emigranteak artatzen dituen Tarnos herriko etxe batean egiten dut lan duela hogeitertetik.

Iparraldeko bizitza espero zenuen bezalakoa da? Zerk harritu zintuen?

Iparraldeko eta Hegoaldeko bizitzak oso ezberdinak dira, nahiz eta herrialde bat izan; Iparraldeko bizitza erabat lotuta dago Frantziako ohiturei eta Hegoaldekoa, berriz, espainolei. Beraz, kilometro gutxiren barruan, bizitza mota zeharo ezberdina da. Garai hartan gehien harritu ninduen harremanak izateko era izan zen; Hegoaldean bizitza gehiago egiten zen kalean.

Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Nire seme-alaben ama hizkuntza euskara da. Ikastolan



heziak izan dira. Hala ere, eta nahiz eta euskararen erabilera orokorrean ugaldtu, azken urteetan oraindik ere frantsesa gailentzen da. Tamalez, nire ingurukoak frantses hiztunak dira.

Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Debako nire kuadrilla, faltan botatzen ditut lagunak. Familia maiz etortzen da gugana, Iparraldera. Eta zer ekarri? Jendearen bizitzeko era independentea. Bakoitzak bere bizitza nahi duen erara egin ahal izate hori.

Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Deba gertu daukat. Seme-alabarik izan ez banu, agian bueltatuko nintzateke, baina momentuz ez da aukera bat.

Laburrean

Paisaia bat:

nire amaren baserritik ikusten ziren bistak (Andutzen, Itziarko herrian)

Usain bat:

itsasoaren usaina, Itziarko Ama Birjinaren bistatik

Zapore edo jaki bat:

nire anaiaren (Roman) baratzeko tomatea

Gustuko dut...:

irakurtzea eta zinea

Ez dut gustuko...:

sare sozialak ez zaizkit gustatzen

Amets bat:

Iparraldeko ikastolek eta, beraiekin batera, euskarak bultzada izatea, eta normalizazio egoera batera iristea



Udala aurrekontuak lantzeko plenoa ahalik eta azkarren egiteko aukerak aztertzen dabil

2020. urterako udal aurrekontuak lantzeko ez ohiko osoko bilkura joan den martxoaren 17an egin nahi zuen Debako Udalak, beharrezko prebentzio neurriak hartuta, baina bertan behera utzi zuen deialdia.

Oraindik ere ez dute argitu noiz egingo den bilkurarako deialdi berria.

Nolanahi ere, gaia ahalik eta azkarren bideratzeko helburuz lanean ari direla azaldu dute Udaletik; alegia, koronabirusak eragindako egoera berri honetan osoko bilkura noiz eta nola egin erabakitze eskura izan ditzaizketen aukerak aztertzen ari direla azaldu diote *Berriketan*-i.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak atzeratzea erabaki dute

Apirilaren 5erako deitu zituzten arren, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak atzeratzea erabaki dute Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak eta bozetara aurkeztutako hautagaitza nagusietako ordezkariak. Koronabirusaren krisia dela eta hartu dute erabakia.

Urkullu joan den martxoaren 16an bildu zen EAJ, EH Bildu, EP, PSE-EE, PP-C's eta Equoko ordezkariak eta ohar bateratu bat atera zuten, hauteskundeak EAEko osasun larrialdia amaitutzat jo ondoren egitea adostu zutela esanez. "Osasun-Larrialdiaren

Adierazpenarekin eta Alarma-Egoeran, ezin izango dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ez osasun publikorako, ezta botoa emateko eskubidea baliatzeko behar diren bermeeekin", adierazi zuten aipatutako idatzian.

Ondorioz, indargabetuta geratu da apirilaren 5erako deialdia, eta hurrengo deialdia Osasun-Larrialdiaren Adierazpena kendu ondoren aktibatuko dela iragarri dute. "Berehala egingo da, alderdi politikoei entzun ondoren, eta Lehendakariaren Dekretu bidez".

Zabalik da Animadeba zinemaldirako film laburrak aurkezteko epea

Data aldaketa iragarri du Animadeba jaialdiak. 2019ko ekainaren amaieran egin zen Euskal Herriko animazio mostrarik zaharrenaren I. Nazioarteko Animazio Zinemaldia, baina aurtengo hitzordua irailaren 3tik 6ra bitartean izango dela jakinarazi dute arduradunek.

Zinemaldiaren oinarriak web-orrian argitaratu dituzte dagoeneko eta izen-emate deialdia irekia dago; FilmFreeway plataformaren bitartez egingo da. 13. edizioaren lehiaketa nazioarteko animaziozko film laburrei irekia dago, bai Sail Ofizialean parte hartzeko eta baita Zuzendari Berriak -EHU/UPV- Sailean lehiatzeko ere.



Lehiaketaren oinarriak eta xehetasunak zinemaldiaren web-orrian (animadeba.com) daude eskuragarri, baita izena emateko FilmFreeway plataforma digitalera daraman esteka ere (filmfreeway.com/Animadeba).

Parte hartzeko epea maiatzaren 4ra arte egongo da irekita. Informazio gehiago nahi izanez gero, info@animadeba.com helbidera idatzi daiteke.



IGON MANCISIDOR

Change

Gizakiaren eboluzioan kobazulo garaietatik hona bizi-iraupena asko luzatu da. Giza espeziea, besteak bezala, oinordekoak edukitzeko adina urte bizi-tzeko egina dago genetikoki. Gure arbasoak 20-40 urte bizi omen ziren; hazi berria aurrera eta zaharrari adio.

Orain 75-85 urteko batezbesteko iraupena dugu, 35-40 urtetik gainbehera goaz fisikoki eta mentalki, baina gaur egun erronka bizi-kalitateari eustea da. Horretarako:

1.-Irakurri, jarraitu ikasten, landu burmuina, neuronen suntsipen naturalari jarri oztopoa!

2.-Munduko janari ekoizpenari herri-tarrok jarri behar diogu norabidea, gure ohiturak hobetuz. Askotan industria krudel horrek, irabazien bilaketan, etikak eta ekologikoak ez diren jokabideak ditu. Animalien sufrimendu eta erailketa masiboa, pentsu toxiko eta botikaz betetako kimikoez hornituta gainera. Ohartzen al gara zer jaten dugun?

Bigarren gaztaroa osasuntsu bizitzeko kirola, fruta eta barazkiak gomendatzen dizkigute oinarri gisa. Alzheimer, bihotzeko arazo, diabetes, tumore eta beste hainbat gaitz behi esnearekin, haragi gehiegikeriekin, azukre, tabako, alkohol eta prozesatutako zaborrekin loturik daude.

Inguruko produktuak jan behar ditugu, jatorria ezagutuz eta ekoizpen jasangarri/ekologikoa izan duen edo ez egiaztatuz. Etorkizuneko botiketan gas-tatu orde, hobe orain kalitatezko erosketa egitea.

3.-Bizitza sozial eta jarrera positiboari eutsi, erronkak jarri eta saiatu persona on eta adeitsua izaten.

On egin!

Martin Zalakain Deban

Oso gaztetatik hasi ginen euskal dantzetan Eibarren. Debako kuadrillako askok ere dantzan ziharduen. Behin, hamalau urteren bueltan, lagunek entsegu batera eraman ninduten eta, San Rokeetako haurren eguneko jaialdirako norbait falta zutelako-edo, beste barik, hara non Gipuzkoako makil handiena egin beharrean aurkitu nintzen. Ikusten ari naiz oraindik.

Gerora irakasle ofiziotik bizi izan naiz. Dantzan txukun ikasi nahi izatetik ere bai, sosa ez denak ere biziarazi behar gaitu eta. Eta bat-batean, gutxien usteko nuenean, berrogeitaka urterekin, Deban egokitu zitzaidan lanpostua. Jakin ere ez nekien orduan: Mendata zeukan izena Debako institutuak.

Aurreko ikastetxeetatik *Zalacáin el aventurero* nekarren bidelagun. Gazteentzako irakurgai ustez egokia: gerrak, abenturak Euskal Herrian. Erreklamazio gogorak izan nituen, oster, eta azken hiruzpalau ikasturteetan gure testuetatik erretiratu beharra izan dugu.

Dantza ibilbidean apur bat jantzi eta joan den bost urtetatik hona berrehun gaztek baino gehiagok badute "*urdira eder zeruan, / ederragorik San Juan*" abestia, eskua eman eta urrats berean, Debako institutuan. Dantzak bizimodurako hainbat irakaspen, une gozo ugari eta lagunik onenetako batzuk ekarri dizkit. Azkena, Martin Zalakainen anaia dantzaria.

Martin Zalakain horrek Marian Arregi zenaren eta Juan Antonio Urbeltzen arima darabil sortu zenetik, baina dantzan egin nahi duen egunera esnatzen denean, goizero berri-berritua janzen du. Arkalaren ostatuan kantu zaharrak gauero estrainez abesten diren moduan. Irradako eta habanerak dantzaldirik dantzaldi asmatzen diren bezalaxe. Zalakainekin dira Kattalin eta Tellagorri eta Santa Kruz apaizaren kuadrilla. On Pio Baroja bera ere bai. Talde osoa Debako kiroldegian aritzekoa da apirilaren 25ean. Pentsa ezazu: Lantzeko eroek tumbalalaikaren doinua berriro entzuteagatik zentzutu ere ez dute nahi! Ezagut ezazu Martin Zalakain. Betiko lagun egingo duzu.

Enrike Izagirre

Apirilaren 25ean egingo da Zalakain abenturazalearen ikuskizun dantzatua

2017ko azaroaren 11n estreinatu zen *Martin Zalakain* Argia dantzari taldearen ikuskizun berria, Bilboko Arriaga antzokian. Juan Antonio Urbeltzek gidatutako dantza eta antzerki lana, Artedrama arte eszenikoaren plataformarekin elkarlanean egin dena.

Pio Barojaren *Zalakain abenturazalea* klasikoan oinarritu da Juan Antonio Urbeltz bere ikuskizunaren argumentua lantzeko. Narrazio dramatiko duen dantza-ikuskizuna da, eta zuzeneko narrazio hori Josu Kamara aktoreak egiten du, Pio Barojaren papera eginez. Harkaitz Cano idazleak egokitu ditu Barojaren eleberriko zenbait pasarte eta dantzariak irudikatuko dituzte bertako gatazkak eta gertaerak.

Donostiako Argia taldeko dantzariak gain, Kezka (Eibar), Duguna (Iruñea), Maritzuli (Biarritz), Elai-Alai (Portugalete), Haritz E.D.T. (Elgoibar), eta Arkaitz (Añorga) dantza taldeetako dantzariekin batera,



Gorka Bravo

Gure Kai E.D.T.-ko hiru dantzariak parte hartzen dugu *Martin Zalakain* ikuskizunean: Amaia Ajuriagoikoa, Igor Baroja eta Iera Larrañagak.

Martin Zalakain ikuskizuna 15 herri baino gehiagotan egin ondoren, Debako kiroldegian ikusteko aukera izango duzue apirilaren 25ean (22:00etan). Antzoki eta kiroldegi gehienak ikuslez bete dira, eta Debako kiroldegia ere hala ikusi nahiko genuke. Oholtzan, hogeitau bat musikariak, 80 dantzari baino gehiagok eta Josu Kamara aktoreak (Pio Barojaren paperean eta narratzaile lanetan) parte hartzen dute.

Gure Kai E.D.T.



Ekaitz Zilarmendi



Ekaitz Zilarmendi



Gorka Bravo

Goi mailako jazz emanaldiez gozatzeko aukera Banden Lehian



“Banden Lehia” txapelketaren baitan antolatutako kontzertuak zirela eta, otsailaren 28an goi mailako jazz emanaldiez gozatzeko aukera izan genuen Debako Gaztetxean. Lehiaketaren lehen saio honetan hiru kontzertu izan ziren, NO LAND TRIO, ANGEL FERREIRA TRIO eta IRATI BILBAO QUINTET, eta asko izan ziren jazzez blaitzeko gogoz bertaratu ziren herritarrak.

Oholtzara igotzen lehena Musikeneko (Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia) ikaslez osatutako NO LAND TRIO taldea izan zen. Piano, kontrabaxu eta bateriaz osatutako hirukote gaztea fin aritu zen taula gainean, duela gutxi kaleratutako lehen diskoaren errepa-soa eginez.


Lehen emanaldi hori amaituta, ikusleek Debako Gazte Asanbladak prestatutako luntx ederraz gozatzeko aukera izan zuten. Luntxa oparoa izan arren, ez zuen ikusleen jazz

gosea asetzea lortu; beraz, ANGEL FERREIRA TRIO taldeak ere giro epelean ekin zion bere jardunari. A Coruñaiko Goi Mailako kontserbatoriotik igarotako hirukoteak jazz standard-en (jazz doinu klasikoek) berraztertze eta lan propioz osatutako errepertorioa eskaini zuen, bateriaz, baxu eta gitarraren solo inprobisatuez osatua.

Gaueko azken taldea IRATI BILBAO QUINTET izan zen. Durangoko abeslari gaztearen proiektu pertsonalak boskote formatua hartu zuen oraingo honetan, tradizioa oinarri hartuz jazzaren korrante berrienetara hurbiltzeko asmoz.

Martxoaren 21ean ospatu behar zen bigarren saioa, aldiz, bertan behera geratu zen, azken asteotako egoerak hala behartuta. Oraingoz emanaldi honen data berririk finkatu ez den arren, epe laburrean egingo dela aurreikusten da.

Jazzes Blai Festibala



UXUE PASCUAL

Bizitzarekiko HarrEmana

Zerk eragiten digu plazer gehiago, besarkatua izateak edo guk besarkatzeak?

Gure putzutik aterako gaituen esperoan, kanpotik datorren goxotasunaren beharra desiratzen dugu maiz: txokolate ontza bat, lagun baten deia, nagusi edo gurasoen onespina edota maitalearen zirrarak. Kanpotik barrurako norabideak asetzen gaitu, bai, baina momentukoa da, besterik ez. Barrua beteta dugunean, aldiz, gordeta dugun maitasun handia konpartitzeko behar horretan besarkatzen dugu, laztantzen dugu, laguntzen dugu, maitatzen dugu... Eta horrek, horrek bai betetzen gaituela!

Zoriontasunaren ibilbidea berdina dela esango nuke: hartzen, bizitzen ditugun esperientzietan baino horiei ematen diegun esanahian dago gakoa.

Izaten ditugun bizipenen arabera dela pentsatzen dugu maiz, esperientzia positiboan aurrean poztasuna, eta negatiboan aurrean tristura, haserrea, mina, etab. sentitzen baititugu. Aldiz, egungo ikerketek eta baita gure logikak ere kontrakoa berresten dute. Duela gutxi zera irakurri nuen: gure zoriontasunaren %50 gure biologiak markatzen duela, soilik %10 gertatzen zaigunak eta %40a esperientzia horiei aurre egiteko gure jarrerak. Beraz, egin dezakeguna handia da, eman diezaiozun ba bizitzari merezi duena!

KORONABIRUSA ETA BERE ITZAL HANDIA



Aste Santua amaitu arte behintzat mantenduko da konfinamendua

Koronabirusa bezala ezagutzen den pandemiak mundua geldiarazi du, 2019ko abenduan Txinako Wuhan hirian lehendabizikoz antzeman zutenetik. SARS-CoV2 birusak Txinako mugak zeharkatu ditu, eta hilabete gutxiren epean mundu osora hedatu da. Birus horrek COVID-19 gaixotasuna eragiten du gizakiengan, eta gaur egun –martxoaren 23an–, 340.000 kasu inguru antzeman dituzte mundu mailan 178 herrialdetan. 14.000 hildakotik gora eragin ditu; kasurik larrienak Italia eta Txina diren arren, beste hainbat herrialde ere gogor astindu ditu, Iran edo Espainia esaterako. Azken honen kasuan, gaurkoz 33.089 kutsatu daude eta 2.207 hildako eta badirudi Europako beste herrialde batzuetan ere egoerak okerrera egingo duela.

Euskal Herrian, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako datuen arabera, 2.421 lagun kutsatu dira Euskal Autonomia Erkidegoan, eta horietatik 120 hil dira (Araba da kutsatu gehien dituen lurraldea); Nafarroan, berriz, COVID-19ren 886 kasu antzeman dituzte, Nafarroako Osasun Zerbitzuak emandako datuen arabera, eta horietatik 24 hil dira.

Iturri ofizialek emandako datu horiek, dena den, ñabartu egin behar dira. Izan ere, gaur-gaurkoz ezinezkoa

da datu horietan kasu guztiak agertzea –kutsatu ostean sendatu egin direnak, inkubatzan ari direnak, asintomatikoak, gaixotu arren probarik egin ez dietenak...–, eta informazio horrek aldaketa garrantzitsua ekar lezake estatistiketan. Osakidetzak hasieran erabaki zuten, esate baterako, Covid-19 testik ez egitea sintoma arinak dauzkaten gaixoei, aurretik Madrilgo Autonomia Erkidegoan eta beste zenbait lekutan agintariek erabakitakoaren ildotik. Egun gutxira, ordea, Espainiako Osasun Ministerioa test azkarrik banatzen hasiko zela iragarri zen; lehenetsuna duten lekuetatik hasita.

Gripe arrunta baino kutsagarriagoa

Gaixotasun honek, gripe arruntak bezala, adinekoei eta aurretik patologia jakin batzuk dituztenei eragiten die gehien, baina gripe arruntarekin alderatuta kutsagarriagoa da eta oraintsu arte behintzat ez dago kontra egiteko txertorik. Txina eta AEB ari dira hori sortzeko lehian; azken egunotako albistearen arabera, Txinan koronabirusaren aurkako hainbat txerto garatzen ari dira. Horietako bat, Akademia Militarreko Zientzien alorrak garatutakoa, gizakiengan proban jartzea onartu du Defentsa Ministerioak. Beste txerto bat unibertsitateak ari dira garatzen eta horren entsegu

klinikoak apirilean jarriko omen dituzte martxan. Oraingoz, bada, zain egon beharko.

Eragin zuzena gizartearen

Bien bitartean, gaixotasun honen hedatzeak eragin zuzena izan du gizartearen. Ospitaleak lanez gainezka daude lehen kasuak detektatu zituztenetik, ikastetxeak eta unibertsitateak itxi dituzte, supermerkatuetan hainbat apal zeharo hustu dituzte gaixotasunaren bilakaeraren ondorioz hornidura etetearen beldur izan diren herritarrek, farmazietan maskarak eskuratzeko itxaron-zerrendak daude, tabernak itxi dituzte eta kultur, kirol eta, oro har, jende-pilaketak eragiten dituzten jarduerak bertan behera geratu dira.

Deba eta Itziar ere egoera orokorren isla izan dira eta jarduera horiek eteteaz gain Debako Udalak bere titulartasuneko eraikinak itxi zituen lehenik, baita herritarrei ez kutsatzeko gomendio-zerrenda bat luzatu ere; laster, alarma egoera dekretatu zenean, gainontzeko eraikin eta zerbitzu guztiak ere ixtea erabaki zuten. Itziarren, besteak beste, Auzo Udalaren harrera bulegoa itxita dago, besterik jakinarazi artean, baita osasun kontsultategia ere.

Adin-tarte honen zaurgarritasuna



medio, adinekoen egoitzetan eta eguneko zentroetan ere neurriak hartu dituzte. Deban, adibidez, Egunko Zentroa itxi egin dute, nahiz eta teknikari eta langilei ei esker zerbitzua bermatuta egon.

Horiez gain, jende-pilaketak ekiditeko asmoz, apirilaren 5ean egitekoak ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak ere atzeratu dituzte dagoeneko agintariek; Eurokopa ere bai, urtebetez.

Konfinamendua

Bestalde, Ministroen Kontseiluak martxoaren 14an alarma egoera dekretatu zuenetik, konfinamenduan daude beren etxeetan Espainia osoko herritarrik eta Espainia eta Frantziaren arteko muga ere itxi dute. Etxetik soilik ezinbesteko denean irtetea baimentzen da, beraz, aisialdia erabat debekatu dute, baina ez lanera joatea oraingoz (horretarako behar den garraioa erabiliz, publikoak barne), erosketak egitea edo animaliak kalera ateratzea. Neurri horiek polemika handia sortu dute bereziki sare

sozialetan, gaitza hain kutsagarria bada ez direlako behar bezain zorrotzak hainbaten ustean. Txinatik, adibidez, gaixotasunaren hedapena etetea dagoeneko lortu dutenez, neurriak zorrotzeko gomendioa egiten ari zaie Europako herrialdeei. Beraz, hasieran hamabost egunerako aurreikusi bazen ere, Aste Santua amaitu arte behintzat mantenduko da konfinamendua.

Munduko osasun-krisiak zeharkako ondorio ekonomiko eta finantzario oso garrantzitsuak eragin ditu, eta areagotu besterik ez dira egingo aurrerantzean, hedapena kontrolpean ez dagoen bitartean behinik behin. Ekoizpen, kontsumo, turismo edo burtsaren beherakada handiak... ditugu horren adibide.

Inguruotako enpresa bakoitzak ere bere neurriak hartu ditu egoerari aurre egiteko: batzuek ateak itxi dituzte, besteek produkzioa mugatu behar izan dute eta beste zenbait ohiko produkzioa mantentzeko ahaleginetan ari dira, prebentzio neurriak hartuta.

Oro har, aurrekaririk gabeko egoerara ekarri du gizartea koronabirusaren krisiak. Elkarrengandik urruntzea, etxean geratu beharra, harreman-sareak beste bide batzuetatik eraikitzen asmaztea, sormena lantzea, teknologia berriei etekina ateratzen ikastea edo etxeko balkoiak elkarrekintza eta aldarrikapenerako gune bihurtzea –Deban ere ohitura bilakatu da dagoeneko etxetiarrik txalo joka entzutea 20:00etan–.

Ildo horretatik, gaixotasunak eragin duen gizarte-larrialdiari aurre egin nahian hamaika herritan elkartasun eta zaintza-sareak sortu dira.

Adituek diotenez, krisi honek ekonomia globalean utzitako arrastoa ez da desagertuko birusaren eragina kontrolpean izatearekin batera. Modu berean, badirudi ezinbestean sortu den elkartasunerako joerak eta, batez ere, sortuko diren harreman-sare berriek iraungo dutela egunerokoa lehengora gerturatzen denean ere. Ezer ez da berdin izango, antza, baita onerako ere.

Deba eta Itziarko "Herri zaintza-sarea" martxan da

Koronabirusaren ondorioz sortutako alarma dela eta egoera zaugarrienean egon daitezkeen pertsonak laguntzeko sarea osatu da. Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak zabalduetako deialdian, beharra dutenei boluntario moduan laguntzeko prest egonez gero edota laguntza behar izanez gero izena emateko eskatu dute –aldizkari hau inprentara bidean zegoenean, udal ordezkariak jakinarazi zuten 90 boluntariok eman dutela izena parte hartzeko, 12 eskaera egin direla eta bost udal langile dabiltzala deiak egiten 65 urteko gorakoei–. Laguntzaile sareko kideek bete beharreko protokolo zehatza eskuratzen dute, haien osasuna ere zaintzeko.



Baina zeintzuk dira boluntarioen eginbeharrak? Zaintza-sarearen zabalpenean lagundu, auzoko beharrei erantzun edota bakarrik bizi direnei laguntza ematea dira boluntarioen eginkizun nagusiak. 18-65 urte badituzu eta zaintza-sarean parte hartu nahi izanez gero amaieran agertzen diren kontaktuetara ondorengo informazioa helarazi: izen-abizenak, jaiotze data edo adina, NAN zenbakia, telefonoa, emaila, ordutegia eta udalerriko zein auzotan bizi zaren.

Botikak edo lehen mailako produktak behar badituzu edo zaintzarako laguntza behar baduzu ere ondorengo komunikazio bideak baliatu ditzakezu: zaintzadebaitziar@gmail.com posta elektronikoa eta 943 608 047 telefonoa.

**Debako errealitateari ere gertutik begiratu nahi izan diogu eta horretarako birusak eragin berezia izan duen lekue-
tan jo dugu atea; batetik Galdakaoko ospitalean lanean dabilen debar sendagile batekin hitz egin dugu, eta bestetik,
supermerkatu handietan eta botiketan aritu gara galdezka. Hala ere, supermerkatuetan daukaten komunikazio-poli-
tika dela eta ez dugu erantzunik jaso. Hona hemen besteak:**



MARTIN AZNAL BEGIL

**27 urte. Barne Medikun-
tzako egoiliarra, Galdakao-
Usansolo Ospitalean.**

Pandemiari buruz zer dakigu?

Pandemia sortu duen koronabirusa 2019. urte amaieran agertu zen lehen aldiz Txina erdialdean. Informazio-iturri nagusiek diotenez, birus hau gizakiontzat berria da, animali batetik (saguzarra ziur aski) pertsonetara salto eta gizakia infektatu du. Mikroorganismo honek biririk inbaditu eta arnas bideko infekzioa sortzen du. Berria den heinean gizakiok ez dugu honen

“Krisi honi denok batera aurre egiteko momentua dugu”

aurkako immunizazio naturalik, ezta txertorik ere, eta horrek egiten du hain arriskutsu.

Gure osasun sistema gai al da horrelako egoera bati aurre egiteko?

Osasun sistema normalean dauden gaixo kopuruak kudeatzeko dago diseinatuta. Denbora tarte laburrean gaixo kopurua asko handitzen bada, sistema kolapsatzeko arriskua dago. Oraindik ez gara puntu horretara heldu. Hori ekiditeko asmoz, Osakidetzako langileok protokolo berriak aplikatzen eta kudeaketa aldatzen ari gara egunero (langile gehiago kontratatu, zenbait kontsulta bertan behera utzi, programatutako kirofanoak itxi, guardia kopuruak handitu eta abar). Hala ere, gizarteak prebentzio neurriak hartzen ez baditu eta kutsatutako pertsona kopu-

ruak azkar egiten badu gora sistemak ezingo dio bere kabuz erronka honi aurre egin.

Nola bizi da egoera hau ospitale barruan?

Beno, egia esan kezka pixka batekin; egunetik egunera paziente gehiago ditugu, solairuak betetzen doaz eta material falta dago. Egunero erronka berriak agertzen dira eta horiei aurre egiten saiatzen gara. Lan karga handia dugu, eta egunak aurrera joan ahala neke fisiko eta psikologikoa nabaritzen goaz. Eskerrak eman nahiko nizkieke langile guzti-guztiei.

**Gomendio zehatzik eman-
go zenieke herritarrei?**

Gizartearen laguntza behar dugu, garrantzitsuena infekzio berrien kopurua moteltzea da. Horretarako etxean geratzea eta

besteekiko kontaktua ekiditea da garrantzitsuena. Bestetik, eskuak ahalik eta gehien garbitu eta Osasun Sailak esandako prebentzio neurriak jarraitu behar dira.

Beldur sentsazioa nagusitu da gizartearen...

Beldurra baino kezka izan behar da. Azken mendean izandako osasun krisirik handiena ari gara bizitzen. Horrek ez du esan nahi denok hilko garenik, edo itxaropenik ez dagoenik. Dena ondo egiten badugu egoera hau aste batzuetan kontrolatzea lortuko dugu, eta pixkanaka-pixkanaka bizimodua lehengora itzultzen hasiko da. Zortea badugu, birusa ez da estazionala bihurtuko eta urtea amaitzerako amesgaizto baten modura oroituko dugu. Orain, krisi honi denok batera aurre egiteko momentua dugu, batak bestea lagunduz.



AMAIA ZALDUEGI ETXANIZ

**45 urte. Farmazian dokto-
rea, neurofarmakologia arlo-
an. Debako Lersundi kaleko
botikan lanean, 2005etik**

**Zuen egunerokoan zer alda-
keta ekarri ditu koronabirusak?**

Aldaketa ugari ekarri ditu: maskararekin edo lehiatila bitartez atenditu behar dugu, botikan gehienez bi pertsona sartu ahal dira, metro eta erdiko distantzia

“Ohiko botikak eskuratzeko arazorik ez daukagu”

mantendu behar dugu bai bezeroekin baita gure artean ere, sarritan desinfektatu behar ditugu mostradoreak, telefonoak, ordenagailuak, datafonia... Eta, era berean, jendeari informazioa eman behar diogu ahalik eta lasaien eraman dezan egoera berri hau.

Noiztik igarri duzue alarma soziala? Zer eboluzio izan du?

Martxoaren 12az gerotzik gehienbat. Oraingoz goraka doa... baina pentsatzen dugu laster baretuko dela.

**Aspaldi agortu ziren maska-
rak... Bestelako botikak eskura-**

tzeko arazorik duzue, adibidez?

Momentuan, botikak eskuratzeko arazorik ez daukagu. Gainera, Osakidetzak eskuragarri jarri ditu bi hilabeterako tratamenduak errezeta elektronikoa-
ren bidez (normalean hilabete baterako tratamendua jaso daiteke bakarrik); neurri hau botikara ahalik eta buelta gutxien egiteko helburuarekin hartu da.

Gaur egun, gel hidroalkoholikoak, alkohola bera, termometroak, maskarak eta eskularruak lortzeko arazoak ditugu.

**Zuen ezagutzatik, gomen-
dio edo jarraibide zehatzik bai
herritarrentzako?**

Osasun Sailak ematen dituen gomendioak seriooki jarraitzea eskatzen dugu. Oso garrantzitsu da kasuek esponentzialki gora ez egiteko.

Galdetu ez dizugun zerbait nabarmendu nahi, Amaia?

Etxean gauden bitartean, gorputza mugitzea ezinbestekoa dela esan nahiko genieke herritarrei. Bakoitzak bere neurrian, luzaketa batzuk egin beharko lituzke eta ariketa fisiko pixka bat ere bai. Bestela, bizimodu sedentarioaren ondorioz, beste osasun arazo batzuk eduki ditzakegu eta. Laburtuz... etxean gel-ditu eta etxean mugitu!

Emakumeen eskubideen aldeko aldarria M8aren bueltan

Ekitaldiz eta mobilizazioz betetako egitaraua egin da aurten ere Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. Liburu aurkezpenak, ipuin saioak, antzerki emanaldiak... izan dira aukeran hainbat egunez Deban eta Itziarren. Martxoaren 8an bertan, igandea, emakumeei zuzendutako tailerrak, pala azkarreko txapelketa, manifestazio jendetsua eta herri bazkari autogestionatua egin ziren, besteak beste. Hona hemen zenbait hitzordu argazkitan:



"Gogoan ditut izan direnak, direnak eta izango direnak. Neurekin doaz".

Mari Luz Esteban

Bi urtez jarraian greba feminista antolatu ondoren, pasa den martxoaren 8an borroka eguna antolatu nahi izan genuen Debako Talde Feministako kideok. Borroka hasi besterik ez delako egin eta ezinbestekoa delako borroka honekin jarraitzea. Eta bihar zer?

Bihar ere, ildo berean jarraitu behar dugu, gu garelako aldaketaren motore, eta gugandik familiara, kolektibora, herrira, estatura eta mundura zabaldu beharra dagoelako.

Heteropatriarkatu kapitalista da sozialki ezarritako arauen barruan sartzen ez den emakume oro bereizkuntzarik gabe zapaltzen duena. Estandarretik kanpo dauden pertsona guztien zapalkuntza bermatzen duena da: gizonetzkoa, heldua, zuria, heterosexuala, desgaitasunik gabea, ekonomikoki independentea, zaintza-ardurarik ez duena eta inork zaindu beharrik ez duena. Amaia Perez

Orozco gure lankideak esango lukeen bezala.

Horregatik, beharrezkoa da bizitza erdigunean jartzen duen sistema aldarrikatzea. Ez soilik arau horren barruan daudenen bizi estiloa goraiatzea, baizik eta pertsonen bizi kalitatea helburu izatea; bizitza duina erdigunean jarriz, eta ez kapitala.

Horregatik, bihar ere, aldarrikatzen, borrokatzen eta ez isiltzen jarraituko dugu.

Borroka dezagun indarkeria heteropatriarkala desagerrarazteko; jar dezagun arreta gure artean. Sar gaitezen kolektiboetan, parte hartu dezagun herriko ekimen ezberdinetan, gu gara aldaketa honen motore. Aldaketa nahi badugu, busti gaitezen; bizitza duina helburu.

GORA BORROKA FEMINISTA!

Debako Talde Feminista



Herritarrek bidalitako argazkiekin osatu dugu bilduma.
ESKERRIK ASKO DENOI!!!



Martxoaren 8a emakumeen eskubideak aldarrikatzeko egun bat dela iruditzen zaigu, oraindik ere egoera kaskarra delako. Hori dela eta, hilabete honetako Berriketan Gazteak gai bakarra du hizpide. Emakume Langileen Nazioarteko Eguna oinarri hartuta, biografiak, kartel ezberdinak eta film baten erreseina pres-tatu ditugu oraingo honetan.

BIOGRAFIAK



EZAGUTZEN AL ZENITUEN?

INESA GAXEN bere hizkuntza eta ohiturak tinko defendatu zituen emakume ausart bat izan zen. 1566an jaio zen, Nafarroa Behereko Bastida herrian eta Hendaian bizi izan zen. 18 urterekin, sorgina zelakoan, atxilotu egin zuten, baina, haren aurkako pro-barrik ez zutenez, libre utzi zuten. Hondarribian Pedro de Sanzekin ezkondu eta alaba bat eduki zuen.

Zazpi urtez bizi izan zen Hondarribian eta han hainbat hurrek sorgintzat jo eta salatu zuten eta, gainera, Pasaiako portuko hainbat itsasontzi hondoratu izana ere leporatu zioten. Jasandako presio eta estutasun guztiei aurre egin eta hasieratik bururaino ukatu zituen bere kontrako salaketa guztiak. Hondarribiko epaileek Logroñoko Inkisizio Auzitegiaren eskuetan utzi zuten auzia eta, bertan, aurrez ebatsitako ondasunak itzuli eta kargurik gabe libre utzi zuten. Hondarribiko herriak ez zuen epaia onartu, beraz, beste sei emakumerekin batera berriz epaitu zuten, herritik bota zituzten eta Hendaia mugan utzi zituzten. Inesaren arrastoa 1611ko urrian galdu zen.



KASILDA HERNAEZ: Soledad Kasilda Hernaez Vargas anarkista eta feminista ezaguna izan zen. 1914ko apirilaren 9an jaio zen Zizurkilen eta borrokari eskainitako 78 urteren buruan, Biarritzen hil zen, 1992ko abuztuaren 31n.

Hautzaroa Zizurkilen igaro ondoren, Donostiara, Egia auzora joan zen bizitzera. 1931. urtetik aurrera, CNT eta Gazte Libertarioak erakunde anarkistetako kide izan zen eta 1934an 29 urteko espetxe zigorra jaso zuen. 1936ko otsailean askatu zuten, hauteskundeen ondoren. Gerra Zibilean hartu zuen parte Aiako Harrien eta San Martzial mendiaren defentsan. Madrileko defentsan eta Aragoiko frontean ere egon zen.

Iturria: Historia-ofizialaren-bidezidorretan-ahatzitako-protagonistak



Prensa tailerra 2019-2020

Leire Acebes, Nora Ait Akki, Kerman Aizpurua, Ione Aranberri, Ane Castillo, Urko Garcia, Kimetz Oñederra, Nadia Peralvo, Ibai Perez, Amalur Ponce, Nerea Urbizu, Maddi Urkiri eta Haizea Zubimendi.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzaileak:





babesleak:



KARTELAK

1977ko martxoaren 8an egin zituzten Euskal Herrian lehen aldiz M8ko deialdiak. Bilbon egin zuten mobilizaziorik jendetsuena eta 700 emakumetik gora batu ziren Munduko emakume danen borrokarekin elkartasuna lelopean. Hona hemen zenbait mobilizazioren adierazgarri diren kartelak.

Iturria: Argia



ERRESEINA

"PAGO JUSTO" (Bidezko ordainketa)

2010ean egin zen film honen zuzendaria Nigel Cole da. Komedia dramatiko honen protagonista Sally Hawkins aktorea da. Film honek badu bere berezitasuna, izan ere, benetako gertaeretan oinarrituta dago.

Ford enpresan lan egiten zuten emakume jostun batzuek 1968ko ekainaren 7an abiatu zuten greban oinarritzen da filmaren haria. Protagonista ezkondua dagoen eta seme-alabak dituen emakume bat da eta Ford enpresan egiten du lan, beste hainbat emakumerekin, gizonen aldean lan berdina eginez baina askoz gutxiago kobratuz.

Film hau oso interesgarria iruditu zaigu oso mezu garrantzitsua helarazten duelako. Gizonek eta emakumeek maila bereko lana egiten badute, soldatak ere halakoxea izan beharko lukeelako.

**EZ BADA BERDINA EZ AHALEGINA EZ SOLDATA
JAR DEZAGUN GREBAREN DATA**



Erredakzioaren oharra:

Koronabirusaren ondorioz, bertan behera geratu dira kultur, kirol eta, oro har, jende-pilaketak eragiten dituzten jarduerak, baita zerbitzu ugari ere. Aldizkari honen edizioa ixtean, oraindik ere ez genekien noiz arte mantenduko den egoera, baina apirilaren 11ko data aipatu zuten agintariek. Apirilaren bigarren hamabostaldirako aurreikusitako zenbait hitzordu jaso ditugu txoko honetan, baina baliteke horiek ere bertan behera utzi behar izatea datozen egunotan.

APIRILAK 17, OSTIRALA

-22:00. **Plazatik Gaztetxera** bertso desfasa (Debako Gazte Asanblada).

APIRILAK 19, IGANDEA

-10:15. **Bisita gidatua: "Flysch beltza"**. Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

APIRILAK 22, ASTEAZKENA

-18:30. **Kafe tertulia**, Kultur Elkartearen (bakoi-tzak sortutako edo gustuko duen testua irakurri eta partekatzea helburu).

APIRILAK 24, OSTIRALA

-19:00. Rafael Bravoren *"La sombra del aire"* **liburu aurkezpena**, Kultur Elkartearen.

APIRILAK 25, LARUNBATA

-22:00. **Martin Zalakain** ikuskizuna, Debako Udal Kirolegian.

APIRILAK 26, IGANDEA

-8:00. **Zikloturismo lasterketa**.
-**Ipuin kontaketak**, Agirre jauregian. 17:00etan: HHkoentzat/18:00etan: LHkoentzat.

APIRILAK 29, ASTEAZKENA

-19:00. **Irakurketa tailerra**, Kultur Elkartearen.

APIRILAK 30, OSTEGUNA

-19:00. **Irakurketa Kluba**, Ostolaza Udal Liburutegian. *"Lecciones del camino"* (Arantza Urretabizkaia) liburuaz arituko dira.

Aisialdi eskaintzak, bide ezberdinetatik

Egoera berria ahal den neurrian eramangarriagoa izan dadin, herriko hainbat eragilek euren eskaintzak moldatu edo berritu dituzte. Debako Udalaren facebook orrian aurki daitezke horietako zenbait:

-**Zuhatza Kolore Anitzek** proposamen edo erronka ezberdinak luzatzen ditu astero.

-**Debako Kontalariak** ipuin bat eskaintzen dute egunero.

-**Debako Gaztelekuak** *Ziber Gaztelekua* jarri du abian; ekintza ugari egiten ditu egunero.

-**Debako Kirolegiko** langileek etxean egiteko ariketak proposatzen dituzte, bideo bidez.

-**Kulunka Dantza Taldeak** joko bat proposatu du, etxean dantzan ateratako argazkiak sare sozialetara igotzeko.

Lehiaketa

-**Animadeba**. Maiatzaren 4ra arte zabalik egongo da XIII. Animadeba animaziozko film laburren nazioarteko lehiaketan parte hartzeko aukera -irailaren 3tik 6ra bitartean egingo da jaialdia-. Lehiaketaren oinarriak ikusteko: www.animadeba.com.



G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatza

943 191 383

berriketan@zuhatza.com



ZAINTZAKO BOTIKA
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **martxoak 27, 28, 29.**
apirilak 6, 7, 8, 9, 24, 25, 26.

Burgoa Zuazo: **martxoak 23, 24, 25, 26.**
apirilak 10, 11, 12, 20, 21, 22, 23.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: apirilak 4 eta 11
BURGOA ZUAZO: martxoak 28 / apirilak 18 eta 25

9:30 - 13:00



Uzuri
optika audio

www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

LIZ.-ZK.: 3 **Taxi Alain Deba** WiFi

636 135 008
alain@taxideba.eus

www.alain.taxideba.eus

MARIJE CASTRO IRIBARREN

MASAJISTA

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

28 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615 **DEBA**

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

A D

ASESORIA DEBA
Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

LENTZERIA
Azoka
MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

ASKETA, S.L.
ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Entresna Registrada Nº 21/05/049
NIVEL 2

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

lerareneq
"maito ditut nire/guro basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Tel:915 53 95 20- E-mail lerareneq@gmail.com

SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

k
kutxabank

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

 Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

Hilabete erdi etxean
eta zer atarramendu!
Baldintzaotan ezer ongi
ezin omen da mantendu.
Kalean lasai ibiltzeak
ahula hiltzen omen du...
Errazkeriagatik balitz
ez ginateke hemen gu!
Gure hizkuntzak izan zuen
etxea konfinamendu.
Konpromenez eta arduraz
eman zitzaion sostengu.
Beraz neurriak hartu baina,
behar denetik ez kendu.
Metro terdira bada ere,
jardun! Ez dadila zendu!
Hitza baitu tratamendu.

Hitzak: Manex Astigarraga
Doinua: Redemption Song (moldatua)

ZAINDU MAITE
DUZUN HORI

metro eta erdira bada ere...

Zuhotza
euskara elkartea MMZ deba